Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1403

AGINDUA, 2011ko otsailaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena; honen bitartez, laguntza deialdia egiten da 2011 ekitaldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko landa turismoko establezimenduetan inbertitzeko diru-laguntzak emateko erregimena arautzen duen azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuaren babesean.

Euskal Autonomia Erkidegoko landa turismoko establezimenduetan inbertitzeko diru-laguntzak emateko erregimena arautzen duen azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuaren xedea landa turismoko establezimenduei zuzendutako diru-laguntzak ematea arautzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Jasangarriko Plana 2007-2013 delakoan nekazaritzakoak ez diren jardueretarantz anizteko jaso den neurriaren barruan. Horrela, nekazaritzako ustiapenaren jasangarritasuna sendotu nahi da, landa ekonomia anitzagoa bihurtuz.

Dekretu horretako 8. artikuluak ezartzen duenez, araututako laguntzen deialdia egingo da urtero, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak emandako aginduaren bitartez, laguntza eskabideak aurkezteko epeak irekiko dira, finantzaziorako jarritako baliabide ekonomikoen zenbatekoei eta haien jatorriari publizitatea emango zaie, eta diruz lagun daitezkeen inbertsioak zein denbora-tartetan egin beharko diren finkatuko da.

Azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilearen bitartez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorra Antolatzen duten Printzipioen Legearen Testu Bateginak 49.5 artikuluan ezartzen duenez, ekonomia-ekitaldi bakoitzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak indarrean jartzen direnean, eguneratu, berrikusi, edo, hala badagokio, finkatu egingo dira programen diru-laguntzak emateko arauak eta kasuan kasuko deialdia egingo da bere garaian izaera mugagabez arautu zirenentzat. Euskal Autonomia Erkidegoko 2011 ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legea onetsita, beharrezkoa da deialdi hori egitea.

Ondorioz, hauxe

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

1403

ORDEN de 11 de febrero de 2011, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se procede a la convocatoria de ayudas, para el ejercicio 2011, al amparo del Decreto 184/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula el régimen de concesión de ayudas económicas para inversiones en establecimientos de agroturismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Decreto 184/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula el régimen de concesión de ayudas económicas para inversiones en establecimientos de agroturismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, tiene por objeto regular la concesión de ayudas económicas destinadas a los establecimientos de agroturismo, dentro de la medida de diversificación hacia actividades no agrícolas recogida en el Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2007-2013, para afianzar la sostenibilidad de la explotación agraria mediante la diversificación de la económica rural.

El artículo 8 del citado Decreto establece que, anualmente, por Orden de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca se efectuará la convocatoria de las ayudas reguladas, se abrirán los plazos de presentación de solicitudes de ayuda; se dará publicidad al importe de los recursos económicos destinados a su financiación y la procedencia de los mismos y se determinará el ámbito temporal en el que habrán de materializarse las inversiones subvencionables.

El Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, establece en su artículo 49.5 que, una vez en vigor los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi de cada ejercicio económico, se procederá a actualizar, revisar o en su caso establecer las normas reguladoras de la concesión de subvenciones de los programas y a realizar la convocatoria correspondiente de aquellas que fueron en su momento reguladas con carácter indefinido. Una vez aprobada la Ley 5/2010, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2011, se hace preciso proceder a dicha convocatoria.

En su virtud,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Xedea.

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko landa turismoko establezimenduetan inbertitzeko diru-laguntzak emateko erregimena arautzen duen azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuan araututako laguntzen deialdia egitea 2011 ekitaldirako.

Bigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

Azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuak araututako laguntza deialdian 2011 ekitaldian sartzeko eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hirugarrena.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Deialdi honen xede diren laguntzak eskuratzeko eskaerak sailaren webgunean (www.nasdap.ejgv.euskadi.net) eskura dagoen inprimaki-eredua betez egingo dira. Horiek Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzari edo Eskualdeko Nekazaritza Bulegoei (ENB) aurkeztu behar zaizkie. Bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 eta 38.9 artikuluetan aurreikusitako bideetatik edozein erabiliko da.

2.– Eskabidearekin batera, azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuko 9 artikuluan ezarritako dokumentazio guztia aurkeztu beharko da.

Laugarrena.– Diru-baliabideak.

1.– 2011 ekitaldiko laguntzak finantzatzera zuzendutako baliabide ekonomikoak 125.129 eurokoak dira guztira.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako aurrekontu kredituak 86.339 euroko kopurura iristen dira. Europako LGENF funtsari dagokionez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Jasangarriko Plana (GJP) 2007-2013 delakoaren babesean, dekretu horren xedea betetzeko jarri diren kredituen kopuru zehatza 38.790 eurokoa izango da.

2.– Eman beharreko laguntza guztien bolumenak ez ditu gaindituko baliabide horiek edo horiek eguneratzetik eratorritako kopurua, indarrean dagoen legeriari jarraiki aurrekontu aldarazpenak onesten diren kasuan. Laguntzak emateko prozedura ebatzi baino lehen hazkunde hori gertatuko balitz, publizitatea emango litzaioke inguruabar horri. Horretarako, Nekazaritza eta Landa Garapeneko Sailburuordetzako titularrak ebazpena egingo luke.

RESUELVO:

Primero.– Objeto.

Es objeto de la presente Orden convocar las ayudas reguladas en el Decreto 184/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula el régimen de concesión de ayudas económicas para inversiones en establecimientos de agroturismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para el ejercicio 2011.

Segundo.– Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes para acceder en el ejercicio 2011 a la convocatoria de ayudas reguladas por el Decreto 184/2008, de 11 de noviembre, será de un mes, a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Tercero.– Solicitudes y documentación a presentar.

1.– Las solicitudes para acogerse a las ayudas objeto de la presente convocatoria se formularán cumplimentando el impreso-modelo que está disponible en la pagina web del Departamento www.nasdap.ejgv.euskadi.net y se presentarán bien ante la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral o bien ante las Oficinas Comarcales Agrarias (OCAs), o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 y 38.9 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– A la solicitud deberá acompañarse toda la documentación prevista en el artículo 9 del Decreto 184/2008, de 11 de noviembre.

Cuarto.– Recursos económicos.

1.– Los recursos económicos destinados a financiar las ayudas del ejercicio 2011 ascienden a un total de 125.129 euros.

Los créditos presupuestarios con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi ascienden a la cantidad de 86.339 euros. En lo que respecta al fondo comunitario FEADER, al amparo del Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco (PDRs) 2007-2013, la cuantía concreta de los créditos destinados al cumplimiento del objeto del citado Decreto será de 38.790 euros.

2.– El volumen total de las ayudas a conceder no superará los citados recursos o la cuantía que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. En el supuesto de que se produzca dicho incremento, que habrá de tener lugar con carácter previo a la resolución del procedimiento de concesión de ayudas, se dará publicidad de tal circunstancia mediante resolución de la persona titular de la Viceconsejería de Agricultura y Desarrollo Rural.

Bosgarrena.– Egitasmoak burutzeko epea.

2011 ekitaldirako, azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuak aipatutako diruz lagun daitezkeen jarduerak burutzeko epea ezin izango da izan 2011ko abenduaren 31tik haratagokoa.

Seigarrena.– Justifikazioa, likidazioa eta ordainketa.

1.– Deialdi honen babesean ematen diren dirulaguntzen ordainketa aldi bakarrean egingo da, behin diruz lagunduko den inbertsio proiektua gauzatu dela egiaztatzen denean: Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzako teknikariek egiaztapen fisiko egokia egiten dutenean; hura helburutzat izandako xedeari egokitzen zaiola ikusten denean; Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak emandako landa turismoko establezimendu jardueraren baimena eransten denean; eta egin den gastua frogatzen denean. Azken horretarako, fakturak eta egindako ordainketen agiriak aurkeztu beharko dira, agiri originalean edo fotokopia konpultsatuan.

2.– Europako LGENF funtsaren arabera onartutako laguntzen ordainketa Erakunde Ordaintzailearen bitartez egingo da urriaren 3ko 194/2006 Dekretuan xedatutakoari jarraiki. Horretarako, aldez aurretik, Erakunde Ordaintzailearen Zuzendaritzako titularrak ebazpenak egin behar ditu horri buruz.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Aginduaren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien Salan, bi hilabeteko epean, lehen aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 11.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

Quinto.– Plazo de ejecución de los proyectos.

Para el ejercicio 2011, el plazo de ejecución de las actividades subvencionables a las que se refiere el Decreto 184/2008, de 11 de noviembre, no podrá ser superior al 31 de diciembre de 2011.

Sexto.– Justificación, liquidación y pago.

1.– El pago de las subvenciones que se concedan al amparo de la presente convocatoria se efectuará una vez acreditada la materialización del proyecto de inversión subvencionado, mediante la oportuna verificación física por parte del personal técnico de la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral; su adecuación a la finalidad a la que se destina, adjuntando la autorización de actividad del establecimiento de agroturismo expedida por el Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, así como el efectivo gasto incurrido, a través de la presentación de las facturas y comprobante del pago efectuado, en documento original o fotocopia compulsada.

2.– El pago de las ayudas reconocidas conforme al fondo comunitario FEADER se realizará a través del Organismo Pagador, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 194/2006, de 3 de octubre, previas las correspondientes resoluciones dictadas al efecto por la persona titular de la Dirección del Organismo Pagador.

DISPOSICIONES FINALES.

Primera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el mismo diario oficial.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de febrero de de 2011.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.